

Hedabide grafikoak (kamerak eta argazkilariak) sartu ahal izango dira saioaren hasieran edo gai-zerrenda aldatuta batzordearen edo ponentziaren hasiera hartzeko. Jarraipen informatiboa aretotik, barnetik, egin nahi izanez gero, kamerak atzealdean kokatuko dira, informazio-lan horretarako egokitutako gunean.

"Kanutazoak"

"Kanutazoak", aurreikusi gabeko informazio-uneak, ez dira gomendatuko Prentsa eta Komunikazio Ataletik. Informazio-topaketa informal horiek egin ahal izateko, mikrofona kanoan mantenduko da.

Gainerako informazio-harremanak prentsa-aretoan, atrilean, egingo dira.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren instrukzioa, Eusko Legebiltzarrean maskarak erabiltzea arautzen duena

Mahaiak, 2022ko apirilaren 26ko bileran, onetsi du Eusko Legebiltzarrean maskarak erabiltzea arautzen duen instrukzioa, eta erabaki du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria Bakartxo Tejeria Otermin

2022KO APIRILAREN 26KO INSTRUKZIOA, LANTOKIETAN MASKARAK ERABILTZEARI BURUZKOA. COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIALDIAK IRAUN BITARTEAN MASKARAK ERABILTZEKO DERRIGORTASUNA ALDATZEN DUEN APIRILAREN 19KO 286/2022 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA EGUNERATUTAKO NEURRIAK

COVID-19aren aurkako zaintza eta kontrol estrategiak pandemiaren fase akutuaren ondoren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2022ko apirilaren 1eko zaintza epidemiologikorako protokoloan jasotakoak, ezartzen du ezinezkoa dela gure lurraldean birusa ezabatzea eta, beraz, ahaleginak egin behar direla infekzioen larritasunari dagokionez inpaktua murrizteko, asistentziako osasun-sisteman gehiegizko gainkarga sortzen ez duen transmisió maila kontrolagarri bati eusten saiatuz.

Protokoloak azpimarratzen duenez, ahaleginak bideratu behar dira pertsona kalteberak babestera, hala nola azpiko gaixotasun larriak dituzten personak eta immunodeprimidas pertsonak edo SARS-CoV-2aren aurkako immunitate nahikoa garatu ez dutenak.

Se permitirá el acceso de medios gráficos (cámaras y fotógrafas y fotógrafos) al inicio de la sesión o con el cambio de orden del día de la sesión para realizar tomas del comienzo de la comisión o ponencia. En caso de querer realizar el seguimiento informativo desde la sala, las cámaras se ubicarán en la zona trasera, en la zona adecuada para dicho trabajo informativo.

"Canutazos"

Los denominados "canutazos", los momentos informativos no previstos, se seguirán sin recomendar desde la Sección de Prensa y Comunicación. Para poder realizar estos encuentros informativos informales, se mantendrá el micrófono en el exterior.

El resto de contactos informativos se realizarán en el atril de la sala de prensa.

Instrucción de la Mesa del Parlamento Vasco por la que se regula el uso de las mascarillas en el Parlamento Vasco

La Mesa, en su reunión del día 26 de abril de 2022, aprueba la instrucción por la que se regula el uso de las mascarillas en el Parlamento Vasco, y acuerda su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco Bakartxo Tejeria Otermin

INSTRUCCIÓN DE 26 DE ABRIL DE 2022 SOBRE EL USO DE LAS MASCARILLAS EN LOS CENTROS DE TRABAJO. MEDIDAS ACTUALIZADAS CONFORME AL REAL DECRETO 286/2022, DE 19 DE ABRIL, POR EL QUE SE MODIFICA LA OBLIGATORIEDAD DEL USO DE MASCARILLAS DURANTE LA SITUACIÓN DE CRISIS SANITARIA OCASIONADA POR LA COVID-19

La estrategia de vigilancia y control frente a la COVID-19 tras la fase aguda de la pandemia, recogida en el protocolo de vigilancia epidemiológica del Departamento de Salud del Gobierno Vasco de 1 de abril de 2022, establece que no es posible eliminar el virus de nuestro territorio y que, por tanto, se deben dirigir los esfuerzos a reducir el impacto en cuanto a gravedad de las infecciones, tratando de mantener un nivel de transmisión controlable que no genere una sobrecarga excesiva en el sistema sanitario de salud.

El protocolo subraya la necesidad de que los esfuerzos se centren en la protección de las personas vulnerables, como pueden ser las personas con enfermedades subyacentes graves y las personas inmunodeprimidas o que no hayan desarrollado una inmunidad suficiente contra el SARS-CoV-2.



Bestalde, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiak irauen bitartean maskarak erabiltzeko derrigortasuna aldatzen duen apirilaren 19ko 286/2022 Errege Dekretuak xedatzen du ezen, lankidetza, oro har, ez dela nahitaezkoa maskara erabiltzea. Hala ere, laneko arriskuen prebentzioaren arloko arduradunek, lanpostuko arriskuen ebaluazioaren arabera, langunean edo lantokietako eremu jakin batuetan ezarri beharreko prebentzio-neurri egokiak zehaztu ahal izango dituzte, maskarak erabiltzeko aukera barne, aipatu ebaluaziotik hori ondorioztatzen bada.

Kontuan hartuta IMQ Prebentzio Zerbitzuaren kontsiderazioak eta Eusko Legebiltzarrean bi urte hauetan zehar ezarritako prebentzio-neurriak (languneak antolatzea, 1,5 metroko distantzia haien artean, manparak instalatzeara, neurri teknikoak eraikin eta lokaletako klimatizazio- eta aireztatzeara instalazioetan birusaren hedapena prebenitezko), horren ondorioz:

Lehenengoa. Ez da derrigorrezkoa izango languneetan maskara erabiltzea.

Bigarrena. Halarik ere, gomendatzen da maskara modu arduratsuan erabiltzea lantokiko beste eremu batuetan, baldin eta segurtasun-tartea mantentzen ez duen pertsona asko badago eta pertsonen arteko kontaktua noizbehinkakoa ez bada.

Hirugarrena. Nolanahi ere, gomendatzen da maskarak erabiltzea erabilera komuneko eremu itxietan, baldin eta bertan jendea ibiltzen bada edo denbora luzez egoten bada, hala nola osoko bilkuren aretoan, batzorde-aretoetan, ponentzia-aretoetan, bilera-aretoetan, prestakuntza-geletan eta atseden-lekuetan, komunetan, igogailuetan, aldageletan, jantokian eta abarretan, leku horietan batzen den pertsona-kopuruaren, leku horien erabileraren intentsitatearen eta klimatizazio- eta aireztapen-baldintzen arabera.

Laugarrena. Kalteberatzat hartzen diren enplegatuei gomendatzen zaie FFP2 maskara erabiltzen jarrai dezatela, beren buruak babesteko lantokietan.

Honako hauetan jotzen dira pertsona kalteberatzat maskara erabiltzeko gomendioari dagokionez:

1. 60 urtetik gorakoak.
2. Immunokprometituak arrazoi intrintseko edo estrintsekoagatik.
3. Haurdunak.

Bosgarrena. Office eta salmenta-makinen eremuen kasuan gomendatzen da pertsonen arteko segurtasun-tartea mantentzea.

Por su parte, el Real Decreto 286/2022, de 19 de abril, por el que se modifica la obligatoriedad del uso de las mascarillas durante la situación de crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19, determina que, en el entorno laboral, con carácter general, no resulta preceptivo el uso de la mascarilla. No obstante, los responsables en materia de prevención de riesgos laborales, de acuerdo con la correspondiente evaluación de riesgos del puesto de trabajo, podrán determinar las medidas preventivas adecuadas que deban implantarse en el lugar de trabajo o en determinados espacios de los centros de trabajo, incluido el posible uso de mascarillas, si así se deriva de la referida evaluación.

Teniendo en cuenta las consideraciones del Servicio de Prevención IMQ y las medidas preventivas establecidas en el Parlamento Vasco a lo largo de estos dos años (organización de los puestos de trabajo, distancia entre ellos de 1,5 metros, instalación de mamparas, medidas técnicas en las instalaciones de climatización y ventilación de los edificios y locales para la prevención de la propagación del virus), en consecuencia:

Primero. No será obligatorio el uso de mascarilla en los puestos de trabajo.

Segundo. No obstante, se recomienda el uso responsable de la mascarilla en otras zonas del centro de trabajo donde haya una pluralidad de personas que no mantengan la distancia de seguridad y el contacto entre las personas no sea esporádico.

Tercero. En cualquier caso, se recomienda el uso de mascarillas en los espacios cerrados de uso común en los que las personas deambulan o permanecen mucho tiempo, tales como el salón de plenos, las salas de comisiones, salas de ponencia, salas de reuniones, en las aulas de formación y en las áreas de descanso, aseos, ascensores, vestuarios, comedor, etcétera, en función del número de personas presentes en las mismas, de la intensidad de su uso y de sus condiciones de climatización y ventilación.

Cuarto. Se recomienda a las personas empleadas consideradas vulnerables que sigan utilizando la mascarilla FFP2 para su protección en los centros de trabajo.

Se consideran personas vulnerables en cuanto a indicación del uso de la mascarilla:

1. Mayores de 60 años.
2. Inmunocomprometidos por causa intrínseca o extrínseca.
3. Embarazadas.

Quinto. En el caso de los offices y espacios de máquinas expendedoras se recomienda mantener la distancia de seguridad entre las personas.



Kafetegira sartzen eta hori erabiltzeko Mahaiaren 2022ko apirilaren 26ko instrukzioaren arabera jokatuko da. Halarik ere, gomendatzen da mahaikoen arteko segurtasun-tartea mantentzea.

Seigarrena. Aurrerantzean ere derrigorrezkoa izango da lantokien barruan maskara erabiltzea honako egoera hauetan:

- a) Persona bat lantokira badoa arnas birusak eragindako infekzioarekin bateragarriak diren sintoma hauekin: eztula, disnea, eztarriko mina edo errinorrea, sukarrarekin edo sukarrik gabe; baita beste sintoma batzuk ere, hala nola anosmia, ageusia, toraxeko mina edo zefalea.
- b) SARS-CoV-2 bidezko infekzio aktiboa detektatzeko probar (IAPD) positibo eman duen pertsona bat lantokira badoa, sintomariak izan edo ez, eta osasun-zerbitzuak aldi baterako ezintasuna eman ez badio.

Pertsona horrek telelana onartuta badu edo telelanean aritzeko moduko lanpostu bat betetzen badu eta baliabideak baditu, lantokira joan gabe lan egin ahalko du egoera horrek iraun bitartean

- c) Ibilgailu-parkeko ibilgailuak erabiltzen dituzten pertsonak, ibilgailu berean bi pertsona edo gehiago badoaz.
- d) Laneko zerbitzu medikoen instalazioetara sartzen diren pertsonak.
- e) Lanpostuko arriskuen ebaluazioan maskara erabiltzeko betebeharra ezarrita duten beste kolektibo batzuk.
- f) Konfirmatutako kasu positibo baten hurbileko pertsonak.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Prebentzio Zerbitzuak azpimarratu nahi du ezen maskara arduraz erabiltzea, osasun-agintariekin edo prebentzio-zerbitzu honek eskatzen duten bezala, praktika egokia dela lantokietan COVID-19 kutsatzea saihesteko, zeren birusa ez baita desagertu, eta horrek ondorioak izan ditzake pertsonen osasunean.

Horretarako, aurrerantzean ere, Administrazioak maskara kirurgikoak edo FFP2 maskarak emango dizkie halakorik nahi duen enplegatuari, betiere langunetik kanpo dabilenean erabiltzeko, edo lanaldi osoan erabili nahi duen edonori.

El acceso y uso de la cafetería se hará conforme a la instrucción de la Mesa de 26 de abril de 2022. No obstante, se recomienda mantener la distancia de seguridad entre los y las comensales.

Sexto. Se mantendrá el uso obligatorio de mascarilla en el interior de los centros de trabajo en las siguientes situaciones:

- a) Cuando una persona acuda al centro de trabajo con síntomas compatibles con infección por virus respiratorio: tos, disnea, dolor de garganta o rinorrea, con o sin fiebre, así como otros síntomas como anosmia, ageusia, dolor torácico o cefalea, entre otros.
 - b) Cuando, ante un caso confirmado por una prueba de detección de infección activa (PDIA) por SARS-CoV-2, la persona acuda al centro de trabajo, sea o no asintomática, y no se le haya dado la incapacidad transitoria por el servicio de salud.
- En el caso de que la persona tuviera concedido el teletrabajo u ocupara un puesto susceptible de ser teletrabajable y contara con medios, podrá desarrollar su trabajo sin tener que acudir al centro de trabajo, mientras dure su situación.
- c) Las personas que utilicen vehículos del parque móvil y vayan dos o más personas en el mismo vehículo.
 - d) Las personas que accedan a las dependencias de los servicios médicos del trabajo.
 - e) Aquellos otros colectivos que pudieran tener establecido el uso de mascarilla en la evaluación de riesgos de su puesto de trabajo.
 - f) Personas cercanas a una persona con un positivo confirmado.

Disposiciones finales

Primera. El Servicio de Prevención quiere recalcar que el uso responsable de la mascarilla al que apelan las autoridades sanitarias o este servicio de prevención es una práctica adecuada para evitar el contagio de la COVID-19 en los centros de trabajo, ya que el virus no ha desaparecido, con las consiguientes consecuencias que puede tener sobre la salud de las personas.

Para ello, la Administración seguirá facilitando mascarillas quirúrgicas o FFP2 a la persona empleada que lo deseé, siempre que la utilice para su desplazamiento fuera del puesto de trabajo o para quien quiera usarla durante toda la jornada laboral.



Bigarrena. Instrukcio hau helaraziko zaie legebiltzarkideei, funtzionarioei, talde parlamentarioetako langileei eta segurtasuneko koordinatzaileari.

Hirugarrena. Instrukcio honek ondorioak izango ditu onartu eta hurrengo egunetik aurrera eta Eusko Legebiltzarraren webean eta gardentasun-atarian argitaratuko da.

Hala ere, Mahaiak erabakiko du, bere irizpidea nagusi izanik.

DEIALDIAK CONVOCATORIAS

2022ko maiatzaren 5erako izendatu den ohiko osoko bilkurarako deialdia
(12/08.03.00.00093)

Lehendakari honek eta Bozeramaileen Batzarrak 2022ko apirilaren 27an egindako bilkuran hartutako erabakia betez, agintzen dut Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila 2022ko maiatzaren 5ean, 09:30ean, egingo den osoko bilkurako gai-zerrenda.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin**

Gai-zerrenda

1. Legegintzako herri-ekimeneko lege-proposamena, baldintzarik gabeko oinarrizko errenta baten aldekoa. Aintzat hartzeari buruzko eztabaidea eta behin betiko ebazpena.
2. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, gas-galdara komunitarioen erabiltzaileak jasaten ari diren gehiegizko fakturen inguruan. Eztabaidea eta behin betiko ebazpena.
3. Elkarrekin Podemos-IU talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, ASOS aurreikuspen sozial osagarriko sistemei buruz. Eztabaidea eta behin betiko ebazpena.
4. Euskal Talde Popularra-Ciudadanos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, energiaren BEZaren jaitsierari buruz. Eztabaidea eta behin betiko ebazpena.
5. Mista-Vox talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, hirugarren adinekoen trebetasun digitalei buruz. Eztabaidea eta behin betiko ebazpena.

Segunda. Se trasladará esta instrucción a las parlamentarias y parlamentarios, al personal funcionario, al personal de los grupos parlamentarios y al coordinador de Seguridad.

Tercera. La presente instrucción tendrá efectos desde el día siguiente a su aprobación y se publicará en la web del Parlamento Vasco y en el portal de transparencia.

No obstante, la Mesa con su superior criterio decidirá.

Convocatoria de pleno ordinario señalado para el día 5 de mayo de 2022
(12/08.03.00.00093)

En ejecución del acuerdo adoptado por esta Presidencia y la Junta de Portavoces en sesión celebrada el día 27 de abril de 2022, se ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del orden del día de la sesión plenaria que se celebrará el día 5 de mayo de 2022, a las 09:30 horas.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin**

Orden del día

1. Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley de iniciativa legislativa popular, para una renta básica incondicional.
2. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa a las facturas excesivas que están sufriendo las personas usuarias de calderas comunitarias de gas.
3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos-IU, relativa a sistemas de previsión social complementaria (SPSC).
4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Vasco Popular-Ciudadanos, sobre la bajada del IVA a la energía.
5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Vox, relativa a las habilidades digitales de la tercera edad.

